

## **Ybarnegaray-tiarrentzat neskato Olobin**

K. : urte batez izan ninduxun hemen, gladin nindixin Madame Ybarnégaray-ek urzategietako denboran noait behar ziela, ta hor lanian ai izan ninduxun ilaaitia, ta berak ereman nindixin otoan Paiseat, apartamendia beitzuten han, eta à l'avenue Paul Doumer, ta hain garbitzeko, ta hola izan ninduxun kitoik Paisen, ta irraazi nixin oono amost egunez, ta izan ninduxun au Foyer Basque e igandian, ta harrapatu nixin anitz ezaun an, han sehi zienak eta hara jiten zienak igandetam.

E.: gazte zinelaik ori?

K.: ba gaztia nintzalaik ba ono, be, hoita bat urte in nitielaik, donc en cinquante-sept, exactement, urzategietan betiak nitxin hoita bat urte, lanian or nintzalaik, igande atez, ta gero azaroan ereman nindixin.

E.: ze lan mota zinin hor usategietan?

K.: legumen prestatzia, hor etzaten baitziren, ganbaren itia, salaain garbitzia, couverts ezarzia, ta kozinersa baitzuten, hak kozina iten zixin, ta ni xerbitxatzen, les Ybarnégaray, ta goizetan leenik sandwichak saretaat eremaiten, madame eta mademoiselle eta denak an baitzien saretan, heer eremaiten sandwich-ak, ta ai izan nuxu urzo libratzen e, sariak betiak urzoz, eh ben oui, le treize octobre cinquante-sept, goizian askal tenoreko, ez zuxun oaiko ihizia ez, besteik zuxun ba ordian.

E.: emazteak ere ari ziren han?

K.: ta bai, Ybarnégaray-tiarrak ba, errabiatiak zitxun.

E. : sareak jaustarazten ?

K. : ta jaustaazten, oihuka ta il y avait de la joie oui. Ta geo urzo biltzeat, lerroan hilik ezarzen zitxien, gero zakutan sartu ta eremaiten saltzea.

E. : Beren iduriko jendeekin ai zien gain artan ala besteak nungoak ziren?

K.: hemengoak, ihizlariak zuztenak, usatiak, usaiakoak bazitxun, ordian, balio baizitzeen joaitia, joaiten zitxun urte guziz berak.

E.: leku hak nola du izena ?

K. : erran dauxut, urzateiak, ta Oloiko urzateiak.

E.: beti zautu tuzunak zuk.

K.: betidanik, leenik inzuten ta gero ikusi, ta oono re or txu ba, ez bita iizi bera.

E.: Ybarnégaray-tiar oiek bazuten etxe...

K.: chalet-a en bois, zurezko chalet at, ta hartan bazuxun sala, sargia, supazterraaikin, ta han jaten zixien mahaian, erdi-erdian, ta gero bi alderditan bazitxun ganbarak, hor egoiten baitzien, ta gero guk bagindixin giilian, beste ttattola at, sukalde haundi batekin, eta bi ganbaraaikin, eta gu ganbara etan etzaten gintxun, kozinersa ta ni.

E.: han egon zira sasoin guzia?

K.: ta ba, ba.

E.: larrazkenian?

K.: voilà. Urrian.

E.: urte batez ein duzu ori ?

K. : urte atez, geo fini.

E. : beti han da chalet-a ua?

K.: zurezko ori erre zuxun, haiziak ereman eta erre eta nik dakita ze, bestia baitzen en dure ina ordian, en cinquante-sept finitia, hua han duxu, oono re.

E.: kusi tuzia zure etxetik haat joaiten, usotegitaat joaiten?

K.: ta ba, ba araiz, lehenik oseba, gero aita, gero anaia, Ameiketaa joan artio, ta geo senarra, ta geo Jean Jaques, bost pasatu txu.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna  
Alexander Artzelus Muxika  
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy  
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa  
Letren Fakultatea  
UPV-EHU  
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.  
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala